

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2A, defensa de la programación didáctica / ámbito ESO / Bachillerato 2A proba, programazio didaktikoaren defentsa / DBH/Batxilergoa
Resolución 249/2024, de 15 de octubre / 249/2024 Ebazpena, urriaren 15ekoa	

0590 - MÚSICA / EUSKERA

0590 - MUSIKA / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Baldintzak - (Descuento / murrizketa)	5 ptos. / puntu
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu</p> <p>Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, leerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafikoa, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoa ez den beste neurri bat erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu egingen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.</p>	Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
Eduki teknikoa	1 pto. / puntu
<p>Programazio didaktikoak indarrean dagoen araudian ezarritako curriculum elementu guztiak ditu, kasuan kasuko hezkuntza etaparen mailarekin bat etorriz.</p> <p>1.- Curriculum ofizialerako, mailarako eta diseinatuta dagoen testuingururako (ikastetxea/taldea) egokia izatea.</p> <p>•Programazio didaktikoak honako hauek zehazten ditu: helburuak, edukiak, oinarritzko jakintzak, ebaluazio irizpide eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluaziorako prozedura eta tresnak, funtsezko gaitasunak eta espezifikoko eskuratzeko laguntza, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen kasuan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, programazioak, gainera, zehazten du gainerako elementuek zer ekarpen egiten dioten irteerako profilari, bai gaitasunak eskuratzeari dagokionez, bai helburuak lortzeari dagokionez.</p> <p>2.- Koherentzia egotea programazio didaktikoa eratzen duten curriculum elementuen, funtsezko gaitasunak eskuratzearen eta helburuak lortzearen artean.</p> <p>3.- Irakasgaiak, jakintzagaiak, arloak eta eremuak lotura dute espezialitatearekin.</p> <p>4.- Ikasturte bateko programazioa.</p> <p>5.- Curriculumaren eta ikastetxearen esparrua (hezkuntza proiektua): programazioaren oinarriak.</p> <p>6.- Ebaluazio irizpideak, adierazleak eta prozesuak.</p>	1 pto. / puntu

Antolaketa	1 pto. / puntu
Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren araberako testuingurua ematea. 1.- Espezialitatearen curriculum ofiziala. 2.- Curriculum ofizialaren helburuekiko lotura.	0,5 ptos. / puntu
Ongi planteatuak daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika. 1.- Helburuen eta edukien arteko koherentzia. 2.- Edukien sekuentziazio egokia. 3.- Espazio eta denbora antolaketa, eta ikasleen taldekatzea.	0,5 ptos. / puntu
Eduki didaktikoa	6 ptos. / puntu
Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.	2 ptos. / puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.	2 ptos. / puntu
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak.	2 ptos. / puntu
Komunikazio gaitasuna	2 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.	1 pto. / puntu
Epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.	1 pto. / puntu